


AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2023-10-13 / 791 ZENBAKIA / 19. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM



Oparoa izan zen Xoxokako jaien egitaraua, eta parte-hartze handia izan da / 6-11

Bastero Kulturgunearen hogeitau urteak gogoan hartzeko solasaldia / 2-3

Iñaki Goenaga abeltzainari elkarrizketa, behiek pairatzen duten gaitzaren harira / 4-5



Langararen omenez

Andoaingo golegileak ibilbide aparta osatu zuen, futboleant / 12

GAU BELTZA

ANDOAIN · URRIAK 31, ASTEARTEA

•18:15 Txalaparta. Txokolate-jatea Goikoplazan, Batzokiarekin lankidetzan.


•19:00 Antzezlan laburra Goikoplazan. Jarraian, Urki dantza taldearen emanaldia.

•19:15-20:00 "Akerrak okerrak" kalejira. Ibilbidea: Goikoplaza, Kale Nagusia, Zumea kalea, Etxeberrieta.

•19:15-20:30 Beldurraren pasabidea Irunberri elkarteant.

•20:00 Talo-jatea, Etxeberrieta plazant.

•21:00 Zezen-suzkoa. Lebiton konpartsakot lagunekin amaiera emango diogu jaiari.





Mikel Emezabal, Jon Ander Ubeda, Garbiñe Agirre eta Ana Mari Aranburu, Basteroko ekitaldi aretoan. AIURRI

Solasaldia, Bastero hizpide hartuta

Andoaingo Kulturgunearen hogeigarren urteurreneko ekitaldien artean, iraganari tartea eskaini diote. Hitzaren bidez, Basteroko ibilbidean ezinbesteko diren atalak balioan jartzeko. Hots, programazioa, musika-eskola eta ezinbestekoa den ikuslegoa

Erredakzioa ANDOAIN

Hausnarketarako tartea izan zen urriaren 4an, Basteroren hogeitaurogei urteak ardatz hartuta. Kulturaren tenplua izanik, ezer baino lehen, kultur adierazpide zabalduenetarikoa den musikarekin abiatu zen saioa. Hogeitaurogei urte atzera egin bezala, Udala Musika Eskolako irakasleak protagonista bilakatu ziren. "Txoria Txori" kantaren doinuekin ekitaldi aretoko bazter guztiak leundu zituzten. Bertan zenak eta ez zenak emanaldiaz goza dezake, aiurri.eus webgune bideoak atalean sartuz. Emanaldiaren ostean, hitzari tartea zabala eskaini zioten. Udala teknikari lanetan eta Basteroko programazio ardurak izandako Garbiñe Agirre izan zen Aiurriko zuzendariak elkarrizketatu zuen lehen gonbidatua. Haren atzetik igo zen Mikel Emezabal Udala Musika Eskolako zuzendaria. Eta, hirugarrenik, Basteroko bazkide-txartela duen Ana Mari Aranburuk parte hartu zuen. Solasaldiak aurrera egin ahala, Itxaso Mendiluze arte aditua ikusleen artean zegoela erreparatu eta harengana hurbildu zen moderatzailea. Kultur eraikinaren ibilbidean zeresana duten lau aktoreen rola, beraz, aztergai izan zen.

Garbiñe Agirre izan zen taula gainera igo zen lehena. Bastero Kulturgunearen sortze prozesua bertatik bertara ezagutu zuen, bera baitzen kultur programa-

tzailea. XX. urteurrenak badu Agirreentzat bere alde ona: "Dagoeneko, urte gehiago dira zabalik dagoela Bastero, eraikitzeko lanekin alderatuz gero". Lau agintaldi ezberdin behar izan zirela gogoan hartu zuen. 1987-1991 agintaldian, Bastero izango zenari bidea eman zioten, jabetza pribatuko eraikin baten negoziaketak amaitu ostean. Ezinezkoa izan zen garai bateko zinema Kulturgune bilakatzeko asmoa gauzatu, eta hutsetik sortzeko bidea arakatu zen. Garai hartako Joseba Erkizia Euskadiko Ezkerrako zinegotziaren lana nabarmendu zuen Garbiñe Agirrek. 1991-1995 agintaldian finantziarioa lortzeko aukera galdu zen, eta 1995-1999 urteetan Garbiñe Egibar zinegotzi jeltzaileak hauspoa eman zion egitasmoari. 1999-2003 agintaldian, Euskal Herritarrok alderdiko Ainhoa Elizondo zinegotziaren garaian, eraikitze-lan zail eta katramilatsua aurrera eraman ziren. Eta, azkenik 2003ko urrian PSE-EEko Toñy Landa zinegotziak izan zuen Bastero irekitzeko ohorea.

Eserlekuak, hizpide

Basteroko eserlekuak zeresan handia eman dute, urteotan. Deserosoak direla-eta, kekak ez dira gutxi. Bada, Basteroko solasaldian, gogoan hartu zen, beharbada, andoaindar askok ahaztuta duten pasartea. Izan ere, aulkien aukeraketan herri-

Hitzari ekin aurretik, doinua

Udala musika eskolako irakasleek eman zioten hasiera, emanaldiari. "Txoria txori" kantu ezagunaren bertsioa eskaini zuten, eskuartearen zuten instrumentaziora egokituta. Iosune Marin, gitarra; Ane Urbizu, eskusoinua; Mirari Irurzun, biolina; Elena Goerotxategi, flauta; Txitxu Castro, Katrin Iturralde eta Myriam Ulanga, pianoak; Claudia Alduncin eta Mikel Emezabal, klarineteak; Koldo Salaberria, tronpa; Gorka Otamendi, bateria; Igor Ruiz, saxoa. Hasiera dotorearen ostean, solaskideak igo ziren taula gainera.



Hitzordu bikoitza aurretik

Urriak 16-Azaroak 16: 18:30 Erakusketaren irekiera-ekitaldia: "Argazkiak eta objektuak" izeneko erakusketa. Itxaso Mendiluzeren zuzendaritzapean antolatzen ari diren erakusketa da.

Azaroak 3, ostirala 19:00 Ekitaldia. Urteurreneko ekitaldi nagusia. Kultur jarduera ezberdinez osatuta.

Aurreko osteguneko ekitaldia, bestalde, bertan behera geratu zen. Aurrerago egitekotan dira.



Garbiñe Agirre. AIURRI



Mikel Emezabal. AIURRI



Ana Mari Aranburu. AIURRI

BASTEROREN HOGEI URTEKO IBILBIDEA BALIOAN JARTZEKO SOLASALDIA IZAN ZEN

Ibilbide osoan, Garbiñe Agirrek 2003ko urriaren 10eko ekitaldia gogoan hartu zuen. Herriko taldeen emanaldia izan zen, Ixiar Orejak eta Anjel Alkainek aurkeztu zutena. Herriko taldeen arteko sinergiak sustatzeko mugarrria izan zela uste du Agirrek: "Oso oroitzapen ona gordezten dut. Lortu genuen herriko taldeek egiten zutena erakustea, lortu genuen haien artean harremana sortzea. Baliabide teknikoek dagokionez, gutxitan bezalako erakustaldia egin zen. Argiak, teloaia, azpitik igotzen zen tranpaldoa... Basterok zituen aukera tekniko guztiak erakusteko aukera izan genuen egun hartan". Aiurri.eus webgunean,

SOLASALDI OSOA AIURRI.EUS GUNEAN IKUSGAI DAGO, BIDEOEN ATALEAN KLIK EGINDA

bideoen atalean, ikusgai dago solasaldi osoa. Bertan ageri dira Agirre kultur programatzailer izandakoak adierazitako guztiak. Udal Musika Eskolarentzat urrats erabakiorra izan zen, Basterora lekuz aldatzea. Sakabanatuta eta lokal zaharretan irakasten egotetik, sortu berria zen eraikinerara igaro ziren. Bastero zabaldu denetik matrikulazioa handitu egin da, Andoaingen. Hogei urteko ibilbidean, badira musika ibilbide oparoa egin zuten ikasle ohiak. Hots, Imanol Iribarren piano-jolea, Karlos Rubio perkusio-jolea, Erenitz Jauregi flauta-jolea, Mikel Urdangarin bibolin-jolea edota Klaudia Alduntzin klari-

"ARGAZKIAK ETA OBJEKTUAK" ERAKUSKETA URRIAREN 16AN ZABALDUKO DUTE

nete-jotzailea. Hogei urteko ibilbidean, emanaldi gogoangarria izan zen, harentzat, Oskorriekin batera egindakoa. Ikuslegorik gabe nekez egin dezake kultur jarduera batek aurrera. Ana Mari Aranburu Basteroko bazkideetakoa da, eta kulturak eman dionaz eta bazkide izatearen abantailez jardun zuen Basteron. Garrantzia handikoa bilakatu da berarentzat. Ezin aipatu gabe utzi ikusleen artean zegoen Itxaso Mendiluze arte komisarioa. Basteroko lehen erakusketan parte-hartze zuzena izan zuen. Garbiñe Agirrerren lana aintzat hartu zuen, eta erakusketen aldeko apustu hobea egitea aldarrikatu zuen.



Ikusleek bete beharreko afitxa.

Ikuslegoaren emanaldi gogoangarriak

Bertaratu ziren ikusleei, hogeitau urteko ibilbidean, emanaldi bat aukeratzea eskatu zitzaizkien. Idatziz jasotako oharren artean, hauexek Basteron noizbait taularatutako artista edo ikuskizun kuttunak: George Moustaki, Imanolen azken kantaldia, "Laika" antzezlan, "Intocable" filmaren emanaldian ikuslegoarekin sortutako kimika, "Kutsidazu bidea, Ixabel" antzezlan, eMekumeak emanaldia, BasqExtremFolk jaialdia, "El interprete" antzezlan, Ara Malikian, Andoaingo Banda eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Izaro, Katramila taldearen antzezlan, "Francoren bilobari gutuna" antzezlan, Andoain 400 urte ikuskizuna eta Benito Lertxundi.

tarrek zeresana izan zuten. Hainbat aulki probatzeko aukera izan zen, pleno aretoan. Irabazle izan ziren aulkiak luze eta zabalak ziren, 500 eserlekuko auditorioan sartzeko ezinezko zirenak. Basteroko arkitekto etxearen oniritziarekin egin zen aukeraketa, eta alde estetikoak ere aintzat hartu zen: "Jarri genituenean ez zitzaizkigun hain txarrak iruditu. Baina jarri orduko hasi ziren kritikak. Beraz, Basterok 25 urte egiten ditueneko, Udalak berriro beharko lituzke", adierazi zuen Agirrek. Ikusleen artean, pasarteak, bastero eragin zituen. Bat eginez bezala, aulkiek sortzen duten deserotasunarekin.

Musika kalean

Basteroren urteurrenean zuzenean aritu ziren bi talde. Ttottekusik: Uxue Iturriondobeitia (perkusioa), Amaia Mendiluze (zeharkako flauta), Itxaso Sanchez (ahotsa), Maider Rekondo (pianoa) eta Amane Otaegi (gitarra).

The Fino's Band: Rebeka Gestoso (abeslaria), Aitor Larrañaga eta Fede Forkada (gitarra elektrikoak), Daniel Pagola (baxua), Aitor Alkain (saxua) eta Wentxi Gozalo (bateria).



AIURRI



AIURRI



Iñaki Goenaga Oiamar baserriko behi-ustiapenean, artxiboko irudian. AIURRI

“Hotzaldi serioreen bat arte iraungo du eltxoak, gurean”

IÑAKI GOENAGA URNIETAKO OIAMAR BASERRIKO ABELTZAINA

Arduratura daude abeltzainak, Moskito batek behiak ziztatu eta heriotzara eraman baititzake, mingaina eta muturra kaltetuz

Andoni Urbistondo URNIETA

Arazoari arazo dabilta aspal-ditik abeltzainak. Esne, edo haragi ustiapenen bideragarritasun ekonomikoa kolokan dago aspaldi, baina arazoez ez dute

etenik. Gaixotasun hemorragiko epizootikoa delakoarekin dabilta bueltaka orain, behiak ziztatu eta mingaina eta muturra handitzen dien ziztada, behiak jan ezinik utziz. Egoeraren berri

zehatz eman digu Oiamar baserriko abeltzainak.

Nola izena du gaitzak, Iñaki?

Gaixotasun hemorragiko epizootikoa da gaitzaren izena. 2022ko azaroan izan genuen

horren berri, Andaluzian azaldu zelako. Urrun geratzen zitzagun, hango beroa, hemen beste klima bat genuela... Pixkanaka iparrera egin du Moskitoak, eta Gipuzkoan jo du gogor azken astetan. Gaztela-Leonen ere jo zuen fuerte, Kantabria aldean gero, eta orain guregana iritsi da.

Zer da, zehazki, Moskito hori? Edo zer egiten du?

Moskitoaren ziztadak eragiten du gaitza. Ez da behi batetik bestera kutsatzen den gaitza. Kutsatzeko beharrezkoa da ziztada. Gaitz berria da, eta albatariak, Foru Aldundiko teknikariak, gu geu, denak larri samar gabilta, ez baitakigu gauza handirik Moskitoaren inguruan. Hilabete da behiak ziztatzen hasi zirela, eta egindako analisiak emaitza deigarriak eman dituzte. Behi bat kutsatzen bada, ondoko bospasei abere immunizatuta daudela, adibidez. Alegia, behiaren immunologiak berak antigorputzak sortu dituela, dagoeneko, Moskitoaren ziztadaren aurka.

Behi denei berdin eragiten al die?

Ez, haragi behiengan askoz eragin handiagoa dauka. Esne behien kasuan, momentuz kasu puntual

batzuk bakarrik jaso dira. Haragikoen kasuan belazeetan dabilena harrapatu dute, zaharrak gazteak baino gehiago... gaitz berria da, eta ziurtasun gutxi dauzkagu momentuz. Zergatik erasotzen duen behia? Ez dakigu.

Zuena esne behien etxaldea da.

Bai. Momentuz ez dugu arazorik eduki, baina urduri gaude. Zer den ez dakigunez, zaintza bereziarekin gabilta, behien muturra eta mingaina egunean bitan artatuz, inflamaziorik ba ote den ziurtatzeko. Haragi behien etxaldea dutenez lan zailagoa da, abereak hiruzpalau lur sailetan izaten dituztelako banatuta. Egun pare batean triskantz handi samarra pasatako ustiapen pare bat badira, eta ezin dugu lo hartu.

ENBA sindikatuko kidea zara, ze aholku ematen diezue abeltzainei?

Gaitzaren susmoak ikustean albaiteari deitzeko, lehenbailehen, dianostikoa egin eta Gipuzkoako Foru Aldundia jakinaren gainean jartzeko.

Nola sumatzen duzue Moskitoak behia ziztatu duela?

Mingaina eta muturra handituta dituelako. Ordu batetik bestera nabaritzen da Moskitoak

behia ziztatu duela. Hala ziurtatzen bada, inflamazioaren aurkako botikak eman behar zaizkio. Ziztadak zauriak egiten ditu behiaren ahoan, eta egiten dituenen ultzerak eta infekzioak sor daitezke. Zaurien kasuan behiari antibiotikoak ematea ere gomendatzen dugu, ziztada bitartez.

Hilkorra al da ziztada?

Bi egunetan hildako behien kasu batzuk ezagutu ditugu. Behia gaixo noiztik zegoen ere ez dakigu ziur.

Beldurtuta al zaudete?

Beno... Gipuzkoako Foru Aldundiko al baitariak dioenez berari animo pixka bat eman dio behi denak kutsatuko direla jakiteak, azkar pasako dela. Urola Garaia eta Debagoienan hasi zen, hilabete eskas atzera. Iraila bukarran eragina murriztu egin da, eta Goierri aldera mugitu, eta azken bi astetan gure ingurura etorri omen liteke gaitza.

Botika, al baitari eta beste gastuak ordaintzeko laguntza eskatu zenuen, eta Aldundia aztertzen ari dira.

Bai. Botikak ez dira garestiak, egun bateko tratamendua behiarrentzat 10-15 bat euro izango dira. Al baitariaren bisita garestiagoa da, eta gastu hori Aldundiak bizkar gain hartzea eskatu dugu. Hiltzen den aberearengatik jasoko dugun dirusariak arduratzen gaitu gehien. Espainiako Ministeritzak ez du ezer arautu, Kantabriako Gobernuak bai, EAEn momentuz ez dago ezer. Gaixotasun ezezagun baten ondorioz hildako aberea denez, gaitza identifikatu behar da derrigor, eta horretarako abeltzainek parte ematea derrigorrezkoa da. Entzuna naiz, baserritarren bati: 'ez dago tratamendurik, zertarako emango dut parte?'. Aberea hiltzen bada, eta gaixo egon zi-



Ziztadak zauriak egiten ditu behiaren ahoan, eta egiten dituenen ultzerak eta infekzioak sor daitezke. AIURRI

tekeela dioen agiririk ez badago, kalte-ordainik ez da jasotzen. Laguntzena etorriko da, baina gaitzari aurre egin behar zaio orain, parte emanda.

Abeltzainen bati entzun nion, hotz bolada serio bat dela, moskitoa akabatzeko botikarik onena. Ados zaude?

Bai, baina ez da bizpahiru eguneko eurite edo freskatze bateko kontua izango. Abendua edo ilbeltzeko izozte potolo batzuk etorri arte moskitoak gurean aise iraungo duela esango nuke. Moskitoak, gu bezala, prestatu egiten dira, eguraldi hotzari eusteko.

Txertoren bat izan al liteke soluzioa? Ez dakit ba... Bi hamarkada atzera mingain urdinen gaitza

ere pasa genuen. Txertoa sortu zuten, baina irudipena daukat erremedioa gaitza baino okerragoa izan zela, hainbat abere hil baitziren; batez ere ardiak. Neurri ezberdinak hartzen dira administrazioa bat edo bestea izan. Ipar Euskal Herrian eta Frantziaren gaitza azaldu eta berehala etxaldeak itxi dituzte, gurean horren arrastorik ez dago. Mingain urdinaren gaitzarekin Espainian txertatzeko obligazioa jarri zuten, Ipar Euskal Herrian ez... Ez dugu uste txertoa izango denik moskitoaren gaitza konpontzeko botika egokia.

Aldaketa klimatikoa gora eta behera, tamainako gaitzekin ohitzen hasi beharko dugu, ezta?

Dudarik ez, eta azkar.

Bestelakoan, zer moduz zabilzate sos kontutan?


Esne behi ustiapenen kasuan dozena erdi bat hilabete nahi txukun ibili gara, baina berriz ere lehenagoko neurrietara bueltatu gara. Irauteko komeriak, eta goitik sekulako presioak esne litroaren salneurria jais-teko. Haragi ustiapenak okerrago daude, ez baita salneurrik igo azken urtetan. Kontsumoa ere jaisten ari da, etengabe. Bertako produktuari, labeldunari eustea da gakoa, baina banatzailer handiek ez dute bertako produktuagatik gehiago ordaindu nahi. Labeldun marka, txapela

eta ikurrina jarri nahi dituzte, produktuetan, baina kanpoko ekoizpenaren salneurriaren pare, eta hori ez da posible. Bertako produktua nahi dute, bertakoa izan gabe. Uruguai edo Poloniako produktua ekarri, ikurrina jarri, eta aurrera. Haragiarekin egiten ari dira, baina fruta eta berdurarekin ere bai. Okerrenak, gainera, bertako produktuak goratzen dituzten marka handiak dira: BM eta Eroski.

Hitz gogorak dira horiek, lñaki...

BMrena lotsagarria da. Ikurrina bai, baina generoa kanpoko. Eroskik, adibidez, labeldun genero badauka, kontrolen bat badago, baina BM-ren kasuan ez. Super bertakoa esaten dute, baina letxuga ez da Euskal Herrikoa. Beraiek esango dute eurentzat Kantabria eta Errioxako ekoizpena ere bertakoa dela. Esnea ere gurea, bertakoa jartzen dute, baina Galiziakoa saltzen dute. Sal dezatela nahi duten tokikoa, baina ez dezatela esan bertakoa dela. Gainean egon behar dugu, iraun nahi badugu.

"ALBAITARIAREN BISITALDI-GASTUA ALDUNDIAK BERE GAIN HARTZEA ESKATU DUGU"



Behiei eragiten die gaitzak. AIURRI

GHE izeneko gaixotasuna

Behi-haziendari eragiten dion gaixotasuna iritsi berri da Aiztondora eta Beterri-Buruntzara. Europan, urteak atzera, ez zen ohikoa baina dagoeneko lehen kasuak eskualdera iritsi dira. Eitxo baten bitartez kutsatzen da ganadua, bereziki, behiak. Antza, ardiei edota ahuntzei ez die eragiten. Gaixotasun Hemorragiko Epizootikoa (GHE) gaixotasun biriko infekziosoa da, baina ez die pertsoniei eragiten. Irailean, ganaduzaleen artean, honako aholkua zabaldu da: "Ezinbestekoa da azienda guztiei deltametrinaz edo zipermetrinez egindako produktuak ahalik eta azkarren aplikatzea. Baita animaliak garraiatzeko ibilgailuetan beste produktu desintsektatzaile batzuk ere. Gainera, garrantzitsua da ahalik eta arreta handiena jartzea antzeko edozein sintoma agertzeari, lehenbailehen jakinarazteko eta tratamendu sintomatikoa hasteko".



Eragina, mihian. AIURRI



Urnieta
udala



Gau Sorpresan parte hartu zuen antzezle taldea, emanaldiaren amaieran ateratako argazkian. AIURRI

Auzotarren Aste Nagusia

Astelehenean hasi eta igandera bitarte, auzotarren festarako gogoia asetzeko aukera ugari izan da Xoxokan. Janaren eta edanaren bueltan, herri-kirol jardueren kontura, musika eta dantzaren erritmora... Jaiaz gozatu nahi zuenak aukera ugari izan du

Erredakzioa URNIETA

Bakoitzak izango du bere ekitaldi edo hitzordu kuttuna. Gau Sorpresa izan ohi da, auzokide askorentzat, galdu ezin dena. Aspaldiko ohiturari eusten baitiote, oraindik. Garai batean, ohikoa zen auzotarren eskutik egiten zen antzezpena, han eta hemengo jai-egitarauetan. Baina, denboraren poderioz, profesionalizatu egin dira antzeko ekitaldiak. Xoxokan, ez. Lotsak alde batera utzi eta irri eginarazteko gogo faltarik ez duen lagun ugari dago oraindik. Eskerrak, horri! Astearte gauetz izan ohi zen, eta aurten horixe izan da berri-

kuntza nagusia. Ostegun iluntzera eraman zuten auzo-antzezpena. Aurtengoan, Xoxokako agertokia "Xoxoka Telebista Kanala" bilakatu zen. Mandoari klik egin, eta makina bat pertsonaia agertu zen pantailan. Bertakoek ohiko duten grazia eta naturaltasunarekin, makina bat pertsonai ainterpretatu zituzten: Xoxokan kontrola ezarri zuten guardia zibil pare, Xoxokako haur eskolako bi ikasle, tallerreko mekanikoa, ETBko Euzkitze, Joxan Tolosa, Mikel Olazabal eta Xabier Azkargorta esatariak, sagardotegian japoniarrak hurbildu zirenekoa,

Urnietako kiroldegi berrira spinning egitera doazen bi xoxokarren ibilerak... Barre eta algara egiteko aukerarik ez zen falta izan, gaualdi osoan.

Asteko lehen hitzorduak igarota, asteburuan ospakizun ugari izan da Xoxokan. Janaren eta edanaren bueltan, herri-kirol jardueren kontura, musika eta dantzaren erritmora... jaiaz gozatu nahi duenak aukera ugari izan du.

Webgunean atal berezia egin dio Aiurrik, Xoxokako jaiari. Aiurri.eus gunean sartuta, dozenaka argazki eta bideo aurki daitezke, aurtengo jaiaren adierazgarri.



Ezusteke bisitaldiak izan ohi dira Gau Sorpresan. AIURRI



Xoxokarrak kiroldegi berrira spinning egitera joan zirenekoa. AIURRI



Argaratetarrak eta paguatarrak, lehiari ekin aurretik. AIURRI



Trontzan aritu ziren, besteak beste, ostiral arratsaldean. AIURRI



Azken proba letxuga-landaketa izan zen. Dagoeneko hazten ari dira Adarra jatetxearen belardian. AIURRI

Argaratetarrak eta paguatarrak

Ostirala, arratsaldeko 18:00ak, puntu-puntu. Adarra jatetxearen terraza. Aurreko gaueko antzerkiak, Gau Sorpresak, gozo utzi zuen Xoxokako giroa. Eguzkia lagun, ongi-etorri ederra ematear zeuden auzotarrak asteburuko ospakizun-txandari. Zerekin, baina? *Desapiyuakin!* Nola, bestela? Argaratetarrak eta Paguatarrak, Paguatarrak eta Argaratetarrak. Aurrez aurre, urdinak eta gorriak, eta, tartean, zazpi proba: trontza, ergometroa, korrikaldia, ingude-altxatzea, txingak, sagar-bilketa eta... Hitzorduan ezusteko atsegina izan zen azken neurketa... Bi etxeek baratzarekin duten harreman estuagatik, letxuga-landaketak iragarri zuen Xoxokako gazteen arteko norgehiagokako talde-irabazlea. Letxuga-kutxa, probaz proba, lekuko gisa erabili ostean, 216na landatu zituen talde bakoitzak, Argaratetarrek Manex Otegi buru zutela eta, Paguatarrak, berriz, Aitor Aldunberri kapitain.

Suziriak goia jo zuenean ekin zioten neurketari, trontzan. Antzeko konpasean osatu zuten lehen mozketari bi taldeek, baina, alde txikiarekin izan arren, pixkanaka-pixkanaka, aurre hartu ziren gorriek Otegiren taldeak. Hiru ebaki eginda, letxuga-kutxa korrikalariei eman eta hantxe abiatu ziren Oiarbi baserrira, zitzu bizian, joan eta etorrian, joko garbia egin asmoz, talde bakoitzeko epaile bana, Julen Gabirondo eta Mikel Zumeta, atzetik jarraika zituztela. Segundo gutxiko desberdintasunarekin iritsi ziren bi taldeak ingude-altxatzerara. 40 kolpe biserari, urdinek 18 kiloko ingudearekin eta 10 kilokoarekin gorriek. Oreaktua izan zen lehia, eta, jarraian, ergometroari eutsi zioten: 1000 metro Paguatarrak, 800 metro Otegiren aldekoek. Nahiko paretsu zebiltzan, erdiko lanak osatuta. "Aupa Pagua! Gora Argarate!", entzuten zen bien bitartean, ikusleen artean. Animoak ez ziren falta izan hitzorduan, bi aldeentzat.

Arraun-arietaren azken txanpan, Argaratetarrak ziren buruan, baita ondorengo trontzako proban ere, abantaila are handiagoa hartu baitzuten urdinek. Behin ondorengo korrikaldia osatuta, txingak txanda iritsi zen. Hamar plaza egin zituzten bi taldeek, 35 kilogramoko pisuarekin alde bakoitzean. Erritmo onean ekin zioten biek ala biek erronkari, eta izerdi patsetan zein esfortzu handia eginda eman zieten lekukoa sagar-biltzaileei. Aise gailendu zen lehiaren azken aurreko neurketan talde urdina, eta, abantailaz, ipini zuen 216. letxuga Manex Otegi kapitainak. Ahaleginak ahalegin, landaketa zitzu bizian egin arren, ez zen nahikoa izan Aldunberriren ahalegina norgehiagoka irabazteko. Argaratetarrena izan zen garaipena.

Lagun-giroa nagusi izan zen hitzordu guztian, nabarmena baitzen parte-hartzaileen arteko konplizitatea, bai proban, bai jaiak irau bitartean. Hala, hurrengo urtera arte itxaron beharko dute Paguatarrak, *desapiyuan* nagusi izateko. Bien bitartean, nork jango ditu bertan landatutako 432 letxugak? Otordua egingo dute, akaso, festa gogoangarriek utzitako ajea baretzeko. Ospakizun-uzta ederra bildu dute auzotarrek aurtengo jaietan. Are oparagoa izan dadila datorrena!

www.aiurri.eus



**Atal berezia webgunean:
Xoxokako jaiak**

Albisteak, argazki-bildumak, bideoak
KLK BAKARRERA



Aitor Matxain, Eneko eta Enrike Artola eta Jesus Matxain. AIURRI

Artolatarren eta matxaindarren arteko lehia estua

Bi lehiakideen idi pareak 1.500 kiloko harriarekin lehian jarri zituzten, jaietan. Artolatarrak gailendu ziren

Xabier Lasa ANDOAIN

Pare-parean ibili ziren, biak ere. Eta, azkenik, Artola anaiak eta bere idiek irabazi zuten, oso gutxigatik. 48 plaza egin zituzten artolatarrak. 47 plaza eta 20,68 metro, berriz, matxaindarrek. 25 metro ditu Xoxokako plazak, eta 20 minutuko saioa

egin behar izan zuen idi-pare bakoitzak. Oiartzungo Eneko Artola eta Enrike Artola itzainak aritu ziren idi-pare irabazlearekin. Bestetik, Errenterriko Jesus eta Aitor Matxain aita- semeak aritu ziren. Xabier Arozena aritu zen, epaile lanetan.



47 plaza eta 20,68 metro, matxaindarren eta beren idien marka. AIURRI



48 plaza, artolatarren idien marka. Saioa, web orrian ikusgai. AIURRI



Arruti, Telleria, Arbelaizte eta Olaizola, aizkorak eskuan, larunbat eguerdiko pentatloian. AIURRI

Segundo gutxiko tartea

Emakumeak gizonezkoen aurretik sailkatu ziren, Xoxokako Pentatloian. Harria jasotzen, giza proban, aizkoran, txingekin eta korrika egin ostean, Arrutik eta Arbelaizte eskuratu zuten garaipena, Telleria eta Olaizola kirolariei segundo gutxiko aldea ateraz

Xabier Lasa URNIETA

Ikuskizun polita eta lehiatua eskaini zuten Nerea Arruti-Amalur Arbelaizte eta Beñat Telleria-Xabat Olaizola kirolariek, elkarren aurka lehiatuz. Honatx, egin behar izan zituzten lanak:

1. Harria jasotzea: 25 jasoaldi. Neskek: 63 kiloko harria; mutilek: 100 kiloko harria.
2. Giza proba: plaza bat bakoitzak. Neskek: 250 kilo; mutilek: 400 kilo.
3. Aizkora: 3 egur bakoitzak. Neskek: 45 ontzakoak; mutilek: kanaerdikoak.
4. Txinga: 4 plaza bakoitzak. Neskek: 35 kilo; mutilek: 50 kilo.
5. Korrika: 10 buelta bikote bakoitzak.



Xabat Olaizola, 400 kiloko harriarekin. Nerea Arruti, 250 kilokoarekin. AIURRI



Nerea Arruti, harria goi-goian duela. AIURRI



Arbelaizte utzitako txingak hartu ziren Arrutik, jarraian. AIURRI



Txingak, lokotxak, sokatira... Hamaika proba egiten jarri zituzten auzoko kirolariak. Argazkian, sagar-jokoa. AIURRI

Jaien amaiera, igandean

Bertako kirolak, bertako sagardoa eta bertako musika-doinuak. Osagai horiekin amaiera eman zioten jaiari. Aste osoan ekitaldi ugari izan da, eta nabarmentzekoa da antolatzaileen lana



Sagardo-dastaketa, igande arratsaldeko osagarria. AIURRI



Igande arratsaldean parte hartu zuten kirolariak, taldeko argazkian. AIURRI



Trikitilariek girotu zuten igande arratsaldea. AIURRI



Dozenaka lagun elkartu zen plazan. AIURRI

Jarduera fisikoa eta lagunartea, beharrezko dira biak ala biak

Urnietak harrera beroa eskaini zien larunbat eguerdian hurbildu ziren adinekoei. Bosko Anitz txarangak, Txanbolin txistulari taldeak, Kantazaun taldeak eta Fermin Argiñarena bertsolariak parte hartu zuten irteeran eta helmugan

Xabier Lasa URNIETA

Urnietako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkariak zabalak egin zion harrera, larunbat goizean, Aguijupens elkarteak antolatutako marea zuriari. Gipuzkoa osoko ordezkariak hurbildu ziren, haietako gehienak autobusez. Adierazpenak egin ostean, eta Argiñarenaren bertsoak entzuna, oinezko martxari ekin zioten. Urnietan inguruan ibili ondoren, lagunarteko bazkaria egin zuten.

Fermin Argiñarenaren bertsoak

Bi bertso bota zituen urnietarrak, oinezko martxari ekin aurretik. Ongi-etorria izan zen: "Urnietarren izenean gaur kantuan hasten naizela. Desio gendun, espero gendun jendetza bilduko zela, hor ikusten da adinekoak oraindik zutik gaudela. Dena prest dago, senti zaitzete zuen herrin bezala. Etorritako damurik behintzat inork izan ez dezala".

"Eguraldiak ere laguntzen marea zuriz janzteko. Ez gera zarrak, urtetsuak bai, asko dako egiteko. Eskubidea gurekin degu gaur entzunak izateko, horregatik pakezaleak, prestu gerra emateko. Batasunean dago indarra helburuak amesteko".

Martxa amaituta, bazkari jendetsuan, Agustin Garcia partaide zaharrena omendu zuten.



San Juan plazatik abiatu zen ibilbidea. AIURRI



Oinezko bakoitzak gida-liburua jaso zuen. AIURRI



Agustin Garcia adinekoena omendu zuten bazkarian. Argazkian, Mikel Alberdi Denda Berriko presidentea, Felix Elkorobide Aguijupens elkarteko presidentea, Consuelo Frutos Udal ordezkaria, Agustin Garcia omendua eta Jose Antonio eta Maria Mercedes haren seme-alabak. DENDABERRI



Bosko Anitz txarangak girotu zuen eguna, San Juan plazan. AIURRI



Gune estalia, Plazido Muxika plazan. AIURRI

Euria ari duenean, babesa, eta, egun eguzkitsuetan, itzala

Mugara Arquitectura etxearen diseinua darama. Aurreko astean hasita, herritarrentzat zabalik dago

Erredakzioa URNIETA

2021eko parte-hartze prozesua bikoitza izan zen. Udal aurrekontuko 150.000 euro zertan erabili erabaki behar zuten herritarrek. Prozesu hori bera baliatu zuen Udalak, bigarren prozesua abian jartzeko. Herritarrek, zein plaza edo parke estali nahi duten bozkatu behar

zuten. Jasotako emaitzak zenbatu eta gero, Plazido Muxika plaza estaltzearen alde egin zen. Aurreko astean hasita, zabalik dago plaza. Mugara Arquitectura etxearen diseinua darama. Egurra nagusitzen da, euria egiten duenerako, aterpe izan dadin. Egun eguzkitsuetan, itzala emango du.



Gune estalia, irudian. Parean, elkarteen etxea. AIURRI

Mus-txapelketa Andoaingo Batzokiaren eskutik

Datorren azaroaren 10ean izango da, eta izen-ematea azaroaren 3an itxiko dute

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Batzokiak Maximino Lasarte mus-txapelketaren 18. edizioa antolatu du. Datorren azaroaren 10ean izango da eta dagoeneko izena eman daiteke. Telefonoz egingo da, honako te-

lefono-zenbaki honetara deituta: 635 74 64 90. Parte hartu nahi duen bikote bakoitzak 50 euro ordaindu behar ditu. Finalean, parte-hartzaile guztiei afaria eskainiko zaie. Mus azkarrarekin amaituko da afalostea.



Igande arratsaldean gaztetxo ugari hurbildu zen kirolgune berrira. AIURRI

Harrera beroa egin diote haurrek eta gaztetxoek

Ermotegi aldeko Pump track gunea dagoeneko zabalik dago, Urnietan. Asteburuan erabiltzaile asko elkartu da

Erredakzioa URNIETA

Gune estalia eta pump track gunea zabaldu ditu Urnietako Udalak, denbora-tarte berean. Biak ala biak udalerrri gehiengotik nabarmentzen diren eskararak dira. Urnietan ere horrela izan da, eta, honezkero, bi gune berriez gozatzen ari dira bizilagunak.

Gunea oraindik ezagutzen ez duenarentzat, edota Andoaindik hurbildu nahi duenarentzat, Ermotegi eta Etxeberrirantz auzuneen artean dago.

400 metro karratuko espazioa, biziketan eta patinean gozatzeko moduko ibilbidea da. Ireki dutenetik, haur eta gazte ugari hurbildu da.



Bi gurgildun bizikleta eta patinetekin hurbildu ziren gazteak, gune berrira. AIURRI

POSTONTZIA

OSASUN ETXEA ANDOAIN

"Paziente bizia" programan parte hartzeko aukera

"Paziente Bizia-Paciente Activo" programaren berri eman nahi dizugu Osakidetza Tolosaldeko ESIaren izenean.

Nork bere burua zaintzen ikasteko programa da "Paziente Bizia-Paciente Activo" Programa eta Osakidetza Osasun Eskolaren barnean dago.

Autozainketa hitzak aldaketa emozionalak kudeatzen ikastea esan nahi du, besteak beste.

Tailer horretan, tresna batzuk ezagutuko eta jarriko dituzu praktikan, zure emozioak behar bezala ezagutzen eta kudeatzen lagunduko dizutenak, haiekin ahalik eta ondoen bizi ahal izateko.

Tailerrean, 2 ordu eta 30 minutuko saioak egingo dira, astean behin, zazpi astez. Saioak bi monitoren zuzentzen dituzte, taldean egiten dira eta parte-hartzaileak izateko helburuarekin sortu dira.

Gutun honen bidez, "Nire ongizate emozionala zainduz" tailerra iraillean eskainiko dugula jakinarazi nahi dizugu.

Urriaren 20ean hasiko da eta astero izango da saio bat abenduaren 1era arte. Saio guztiak Tolosaldeko Osasun Zentroko 3. solairuko taldeko jardueren gelan izango dira, 10:30etik 13:00ak arte.

Zure edo zuen elkarteko kideen eta inguruko artean tailerraren gaineko informazioa hedatzea eskertuko genuke, baita bertan parte hartzera gonbidatu ere.

Zure osasun zentroan eman dezakezu izena edota honako helbide elektronikora bidali interesa duen pertsonaren izen-abizenak eta kontakturako datuak: pacienteactivo@osakidetza.eus.



Mus-txapelketa, artxiboko irudian. BATZOKIA



Ubitarten harrera egin zieten etxekoei. Ohorezko sarea egin zuten, lagunarteko partidari ekin aurretik. AIURRI

Gorazarre, historia egin zuen futbol jokalaritari

Isidro Langara, adinean gora doazenentzat, ezaguna den futbolariaren izena da. Euskaldunaren mendeurreneko amaierako ekitaldietan, halere, historiak eman duen futbolari onenatarikoa gogoan hartu nahi izan da

Xabier Lasa ANDOAIN

Langara hizki larriz gorde beharreko futbol jokalaria da. Andoaini estuki lotuta dago, eta gaurdaino haren balentria batzuk gainditu gabe daude. Andoaingo Udalak eta Euskaldunak antolatuta, ekitaldi bikoitzarekin gogoan hartu nahi izan da Langara. Batetik, Allurraltera daraman zubiaren izena plaka

batean nabarmenduz. Eta, bestetik, urriaren 10eko solasaldia-rekin. Ibilbide oparoa egin zuen Isidro Langarak Euskal Herriko, Espainiako eta Amerikako futbol profesionalean. Gaurdaino, Espainiako Ligan hiru partidatan segidan hat-trick-a egin duen bakarra da. Eta, selekzioarekin, proportzioan, inoiz baino gol gehien sartu dituen da: 12 par-

tidatan, 17 gol. Futbol izarren konstelazioan, beraz, Messi, Ronaldo, Maradona, Di Estefano eta antzekoen pare dago.

Pasaian jaioa, gaztaroa eta zahartzarora Andoainen eman zituen. 1930eko hamarkadan gailendu zen eta, futbol-ibilbidea amaituta, Andoainera itzuli zen. 1992an zendu zen, Guerrero Langara familiarekin bizi zela.



Eskuinetik lehena, Real Oviedoko Miguel Sanz. AIURRI



Andoni Alvarez alkatea hizketan. Alboan, Junkal Guerrero. AIURRI

Ekitaldia, igande eguerdian



Alkateak eta Kontxi Langarak plaka erakutsi zuten ueña. AIURRI

Ekitaldi instituzionala Zubiaren bi aldeetan "Isidro Langara zubia" esaldia daraman seinalea ikusgai dago, igandean geroztik. Kiroldagiko edo Gaztelutxoko zubia izenekin ezagunagoa zen, orain arte.



Senideak Euskaldunako eta Andoaingo Udaleko ordezkariekin batera. AIURRI

Futbol taldeen omenaldia Euskalduna taldeaz gain, Real Oviedo taldeko Miguel Sanz ordezkaria hurbildu zen igandeko ekitaldira. Hiru egunetan bi bidaia egin zituen Andoainera, astearteko mahai-inguruan parte hartzeko zen solaskidea delako.



Euskaldunako eta Tolosako jokalariek, lehia. AIURRI

Jokalarri ohien arteko partida Euskaldunako mendeurrenean partida bat baino gehiago jokatzeko deitu dituzte jokalarri ohiak. Igandean, Langararen omenaldian, Tolosa CFren aurka aritu ziren. 0-2 gailendu ziren tolosarrak.

ADIERAZPENA

JUNKAL GUERRERO, LANGARA FAMILIAREN IZENEAN ANDOAINEN, 2023KO URRIAREN 8AN

Osaba Isidroren zubia

Guretzat hain egun berezia den honetan, familiaren aldetik, lehenik eta behin, zorionak eman nahi dizkiogu Euskalduna Futbol taldeari bere mendeurrenagatik. 100 urte! Zorionak egunero entrenamenduetan, antolaketan, kudeaketan edo jarraitzaile gisa Euskaldunan ari zaretzen guztioi, horrelako talde historikoa zutik eta osasuntsu mantentzeagatik. Gure osaba hemen balego, oso harro egongo litzateke zuetaz! Segi horrela! Tolosako futbol taldeak ere 100 urte aurten! Osabaren garai bateko taldea ere. Zorionak zuei baita ere!

100 urte, hain denbora luzearen bueltan, dagoeneko Andoaingo ia etxe guztietan izango da Euskalduna Futbol taldearekin zerikusia duen edo izan duen norbait, ezta? Gurean bai, aitona Jesus eta osaba Isidro.

1922an, Aitona Jesus gazte zela, azkar konturatu zen bere anaia txikiak, Isidrok, baloiarekin egiten zituen tiroak izugarriak zirela eta goizean goiz jeikita baloiarekin tiroak entrenatzera eramaten zuen kalera 10 urteko mutikoa. Pena da garai hartako bideorik ez egotea, ikustekoa izango zen eguneroko bi anaien arteko eszena hori.

1925ean, osaba Isidrok 13 urte zituen hain aita hil zen, Jose Manuel Langara eta haien amak, Maria Galarragak berak bakarrik atera zituen aurrera hiru seme-alabak: Jesus, Enkarna eta Isidro. Beste andoaindar asko bezela, adin horrekin hasi omen ziren lanean "Algodonera Fabril Subijanan". "Aprendiz de tornero"... Baina osaba beste zerbaiten bila zebilen: buzoa etxera garbitzera eraman behar zutenean, osabak buzoa baloi bihurtzen omen zuen eta ostikoka tiroak entrenatzen jarraitzen omen zuen kalez-kale, baloiaren



Zubian bertan egin zuen adierazpena, igande eguerdian. AIURRI

faltan. Konturatzen zen erraz eta sendo ematen ziola baloiari. Ezagutu genuenok badakigu hori ere jolas moduan egin arren dotorezia berezi batekin egingo zuela eta ahal zuen hoberen. Gizon dotorea baitzen zen. Gaur ere hemen balego, hunkituta baina, denbora hartuko luke begietara begiratu eta bere esku handi eta sendoekin denoi agur bero bat eskeintzeko. Ahazten ez den eskukoa. Erraza zen berarekin hitz egitea eta barre egitea. Asko maite genuen eta, nahiz eta 31 urte pasa diren bere heriotzatik, oso presente daukagu familian, oraindik.

Bere futbolari-ibilibidea kontatzen asko luzatuko ginatke. Astearterako utziko degu hori, mahai-ingururako. Espainiako ligan eta Euskal Selektzioan baita Espainiako eta Hispanoamerikako talde eta Selektzioetan ere lortu zituen marka batzuk oraindik garaitu gabe daude. Aipatzeko kontu batzuk soilik. Oviedok fitxatu zuenean 18 urte zituela, bigarren mailatik lehenengora igo zela taldea

berarekin. Urte hartan ligan, kopan eta selektzioarekin jokaturako partiduetan 45 gol sartu zituela 30 partidatan. Gol bat 56 minuturo. Partidako golen batzbestekoa 1,16koa da. Horregatik izan zen Oviedo bere bigarren etxea. Oviedorekin hiru bota *pitxitxi* irabazi zituen, gerra aurretik. Gerora, munduko futbolari bakarra da oraingoz hiru liga ezberdinetan *pitxitxi* izan dena. Baita Espainiako ligan hiru hard trick partida segidatan sartu duena. Arrazoi horientzatik eta klubarekin izan zuen harreman estuagatik, askok dakizuen bezela, Oviedoko kale batek bere izena dauka, Carlos Tartiere futbol zelaira eramaten duen kaleak, hain zuzen ere. Eta futbol zelaiko 9. ateak ere Langara izena du.

Orain gaztelarara pasako naiz gurekin baitugu gaur Miguel Sanz, Real Oviedoko historia kontseiluko koordinatzailea eta Real Oviedo Fundazioko kidea.

Eskerrik asko Miguel Sanz, egun berezi honetan gurekin egoteagatik. Eskerrik asko gure osabaren irudia

zabaltzeko egin duzun lan nekaezinagatik, Isidroren biziak kontatuz umeei zuzendutako ingelesezko materiala hain modu egokian eskaintzeagatik. Horri esker, bere nazioarteko arrastoa mantentzen ari da eta munduan jende gehiago interesatzen ari da Andoainekin eta Oviedorekin. Eskerrik asko datorren asteartean Andoainen egingo den mahai-inguruan parte hartzeagatik. Beti bezela, plazerra izango da berari buruz hitz egiten entzutea eta, ziur, azken aurkikuntza historikoekin harrizko gaituzula. Mesedez eskatzen dizugu gure esker ona helaraz diezaiozun klubari gure osabaren figura aldarrikatzen duzuen adorea. Ezin dugu aipatu gabe utzi zuen azken ekarpena: Langarari buruzko dokumentazio-zentroa sortzea. Ekimen horren artean maitasun handia dago, eta berreskuratze historikoari buruzko lan bikaina; gainera, badirudi oso harrera ona izaten ari dela. Zorionak zuen lanagatik!

Osabak munduko muga asko pasa zituen, taldean eta bakarka, hori egitea oso zaila zen garaietan. Espainia, Argentina, Txile, Mexiko... Berak hori dena apaltasunez eramaten zuen eta leku guztietan zituen lagunak. Arrastoa utzi zuen egon zen leku guztietan.

Baina etxean, Andoainen, gutako beste bat zen. Eroso, lasai bizitu zituen bere bizitzaren azken urteak gurekin Zumeako etxean. Goizeko pasean Andoain luzea zeharkatzen zuen goitik behera pausu arinean bere betiko erropekin: mauka luzeko alkandora fin eta dotorea eta *milrayas* galtzak ondo lisatuta beti, eta tenis txuriak oinetan. Eguerdian gure amak sukaldatzen zuena mokadu batean bukatzen zuen eta ogi puska batekin platera garbitzen zuenean esaten zion: "Mari, vale más una vuelta por aquí que tres por el Zócalo!" (Zócalo, Mexiko DF ko plaza nagusia da...). Iluntze batzuetan, edo, asteburutan, Ontza elkartean lagunekin antolatzen zituzten bazkari eta afarietan ere asko gozatzen zuen. Bere bizitzaren amaiera Andoainen izatea nahi izan zuen eta hala izan zen. Zirkulua itxi zuen. Hemengo hilerrian dago lurperatuta eta orain bizirik mantenduko da, nolabait, zubia dela eta.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkizuegu denoi: gure osabaren izena duen zubi honi falta zitzaion kartela jartzea posible egin duzuen guztioi. Euskalduna futbol taldeari, Tolosa eta Euskaldunako beteranoei gaurko partiduagatik, Andoaingo udalbatzari, alkate den Andoni Alvarez Leteri, udaleko kirol arduradunari: Ixiar Olanori, eta artxiboko arduradunari: Karmele Otaegiri, eta gaur hemen, gurekin zaudeten guztioi. Osaba Isidro kiñuka ari zaigu nonbaitetik eta ziur gola sartuko digula! GOOOOL!

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ASTEAZKENA 11

ANDOAIN Batzarra

Etxebizitzaren egoeraren diagnostikoa osatu eta arazoari irtenbidea emateko urratsak aztertuko ditu mahaia. **18:00, Udabatzar aretoa.**

ANDOAIN Matrikulazioa

Galardin matrikulazioa zabalik, abenduan, urtarrilean edo otsailean hasiko diren haurrei begira. **Azken eguna: Urriak 18.**

OSTEGUNA 12

ANDOAIN Dokumentala

"Mapas". Sinopsia zinemaren atalean aurki daitezke. **19:30, Bastero.**

OSTIRALA 13

URNIETA Kontzertua

Ithaka eta Muzak taldeak zuzenean ariko dira. **19:00, Sarobe.**

ASTELEHENA 16

ANDOAIN Jabekuntza eskola

Batukada feminista. **18:00-20:00, Leizaran institutua.**

ASTEARTEA 17

ANDOAIN Parketarrak

Aisialdian euskararen erabilera bultzatu nahi duen ekimena. **17:15, Goikoplaza.**

ANDOAIN Jabekuntza eskola

Bizikletan ibiltzea ikastea. **17:45-19:15, Ondarreta.**

ASTEAZKENA 18

ANDOAIN Parketarrak

Aisialdian euskararen erabilera bultzatu nahi duen ekimena. **17:15, Zumea plaza.**

ANDOAIN Jabekuntza eskola

Kosmetika, hastapeneko tailerra. **18:00-20:00, Urriak 18.**

**ANDOAIN Erakusketa**

"Argazkiak eta objektuak", Itxaso Mendiluzeren eskutik. Basteroren hogeigarren urteurrena ardatz hartuta. **18:30, irekiera ekitaldia. Bastero.**

OSTEGUNA 19

ANDOAIN Jabekuntza eskola

Elektrizitate lantegia. **17:00-20:00, Urigain.**

OSTIRALA 20

ANDOAIN Jabekuntza eskola

Klimaterioa: 40-60 urteen arteko emakumeen aldaketak aztergai izango dituzte. **17:00-19:00, Urigain.**

IGANDEA 22

ANDOAIN Dantza

"Gernika", Bilaka konpainia. **20:00, Bastero.**

ASTEARTEA 24


ANDOAIN Irakurketa kluba

2019an jaiotako haurrei zuzenduta, lagunduko dituen heldu batekin hurbildu daitezke. **18:00, Udal Liburutegia.**



andoainDARRA
euskaraz

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO**


Chinas
Lar, 14. 19:30,
22:00.
Ig, 15. 19:30.
Astl, 16. 19:30,
22:00.

Abentura

erraldoia
Lar, 14. 17:00.
Ig, 15. 17:00.

Mapa
Ostg, 12. 19:30.

Cerrar los ojos
Lar, 21. 19:30.
Astl, 23. 19:30.
Astl, 16. 19:30,
22:00.



SINOPSISIA

**Chinas**

Zuzendaria, gidioa: Arantxa Echevarria. **Aktoreak:** Leonor Watling, Carolina Yuste, Pablo Molinero, Shiman Yang, Ella Qiu, Valeria Fernandez... **Herrialdea:** Espainia (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, haurtzaroa. **Iraupena:** 118 min.

Identitatearen bila dabilzan bi haur

Ikastetxe batean 9 urteko bi neska txinatarrek bat egiten dute, ikasturte hasieran. Denek uste dute lagunak izango direla, baina ezerk ez ditu batzen. Lucia, etorkinen bigarren belaunaldia da. Bertakoa erabat sentitzen da, eta ikastetxeko gainerako lagunekin integratzea baino ez du buruan. Guraso "normalak" izatea gustatuko litzaioke, gainerako lagunek bezala, baina etxekoek etengabe lotsatzen dute, ez baitute gaztelaniaz hitz egiten, 14 ordu baino gehiago ematen

dituzte Bazarrean, eta ez diote urtebetetzea Burger Kingean ospatzen ere uzten. Beste neskatua Xiang da. Adoptatua da eta, bere aurpegiarekin, gurasoen alaba ez dela salatzen du. Xiangek bere familia biologikoaz galdetzen dio bere buruari; ez da txinatar sentitzen eta ez du bere burua onartzen gainerako haurren aurrean. Bi neskek gurutzatu egingo dira, banandu, eta, azkenean, hil ala bizikoak izango dira bata bestearentzat, beren nortasuna bilatzeko.

SINOPSISIA

Mapa

Zuzendaria, gidioa: Leon Siminiani. **Aktoreak:** Leon Siminiani, Ainhoa Ramirez. **Herrialdea:** Espainia (2012). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Dokumentala. **Iraupena:** 85 min.

Mapas dokumentala urriaren 12an

Espainiar zuzendari gazte bat bere lanetik kaleratu dute. Zinema egiteko ametsa egia bihurtzeko, Indiara bidaiatzen

du bere lehen film luzea egiteko asmoz, baina laster ohartzen da benetan bilatzen duena ez dagoela Indian, Madrilan baizik.

Zaintza-lanak aztergai izango dituzte, Andoainen

Bastero Kulturgunean izango da, datorren urriaren 18an, arratsaldeko 18:00tan hasita

Erredakzioa ANDOAIN

Zaintza-lanak aztergai izango dituzte Andoainen, datorren urriaren 18an, Berdintasun Sailak antolatuta duen jardunaldian. Bastero Kulturgunean izango da, arratsaldeko 18:00tan hasita. Euskaraz izango da, aldibereko itzulpen sistemarekin. Bertaratu nahi duten gurasoak gogoan, adin txikikoen zaintza-zerbitzua eskaintzeko prest dira antolatzailerak. Horren premia duenak eskaera egin behar du, alde aurretik.

“Zaintza-lanak. Andoainen zaintza lanekin zer? Aurrera begirako proposamenak”, izenburu hori ipini diote jardunaldiari.

Aurreko urteetan Beterrri-Buruntzan abian jarritako diagnostiko batean abiatu ziren, zaintza-lanen azterketari ekiteko. Eskualdekoa egin zen, lehenik, eta herri mailakoa, gero. Uda aurretik jardunaldi parte-hartzaileak izan ziren, dozenaka partaide hurbildu baitzen. Ikasurte berria martxan jarrita, prozesuak parte-hartzailea izan behar duela argi dute Berdintasun sailean. Andoainen egin zuten diagnostikoaren ondorioetatik lau ildo bereiztu dituzte: amatasuna, etxeko langileak, zaintzaile profesionalak eta etxe berekoak izan eta zaintzaile bilakatzen direnak.

Idea orokorretatik zehaztapenetara jo nahi dute, urriaren 18an. Eta, horretarako, ekintza-plana garatzea tresna baliaga-



Zaintza lanak, diagnostikoa. AIURRI

ria izango dela diote. Helburua ildo nagusiak mamituko dituen talde motorea sortzea baita. Eta, bertan, Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasun lantzailez gain, mugimendu feministari parte hartzeko gonbitea luzatuko zaio. Aurreko urratsetan bezala, Andoaino Martin Ugalde Kultur Parkean egoitza duen Emagin elkarteak bideratuko du prozesua. Eskarmentu handiko elkarteak da, eta Usurbilen nahiz Hernanin antzeko prozesuak bideratzen ari da.

IDEIA OROKORRETATIK ZEHAZTAPENETARA JO NAHI DUTE, URRIAREN 18AN



Cuidado, rebala dokumentalaren irudia. CUIDADORESBALA

Bi dokumental proiektatuko dituzte

Udazkenean, zaintza lanen egitasmoa berrartzearekin batera, bi dokumental eskainiko dituzte.

Cuidado, resbala

2013an Espainian ekoiztutakoa. Sinopsia: “Gizartean ordaindutako jarduerak lehenesten dira, prestigioa ematen dutenak eta diruz neurtzen direnak. Hala ere, guztion bizitzari eusteko ezinbestekoak diren zeregin ikusezin asko daude. Dokumental honek mugimendu feministek bereziki duten kezketako bat jorratzen du: zainketen lana. Nork egiten duen, nola baloratzen diren, zein beharrezkoak diren. Zaintzarik gabe ez dago bizitzarik, eta bizitzarik gabe ez dago ez politikarik, ez merkaturik, ez krisirik... ezer ere ez”. Soraya Ronquillo Bidez Bidez elkarteak kidea hurbilduko da Andoainera.

Ama ta Asunak

June Baonza Pagaldai durangarrak landutakoa. Sinopsia: “Zenbat bete gabeko espektatiba jaurtzen dira emakumeen bizkar gainera? Non biltzen dira hautu hau jarraitzen ez dutenen bizi esperientziak? 6 bizi esperientzia, 6 hautu, 6 elkarrizketa, 6 obra grafiko, bideo bat eta instalazio bat. Proiektuak erresumin horiei guztiei heldu nahi die. Adierazteko behar duten arnagunea eskaini. Gozamenari eta minari, duintasun berarekin tokia eskaini, bizigarriagoak izango diren espazioak sortzeko”.



June Baonza Pagaldai. MONDRABERRI

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
Nagore Sáez Gurrutxaga
Zorionak Amatoxo!
Urriaren 17an 40 udazken beteko dituzu eta gu hor egongo gara zurekin ospatzeko. Jarraitu dezazula etxekoak eta zure ingurukoak horren zoriontsuak egiten. Izugarri maite zaitugu.



ANDOAIN
Ainhoa Makazaga Ezkurra
Zorionak, Ainhoa!
Urriaren 13an, hamarkada berrian sartuko zara. 30 urte! Jarraitu beti bezain alai izaten. Beti aurrera. Muxu erraldoia zuretzat, etxekoak.



ANDOAIN
Zorionak Eneko!!!
Azkenean iritsi zen eguna, irailaren 30a, 18 urte bete zenituen. Familia eta lagunekin asko disfrutatuz duzula badakigu. Animo zure Madrilgo esperientziarekin eta ez ahaztu maite zaitugula. Muxu potoloak!!!!

Urte askotarako!

- **www.aiurri.eus**
Zorion agurrak atalean.
- **Whatsapp bidez:**
619 16 35 37.
- **Email:**
diseinua@aiurri.eus.
- **Bulegora etorri:**
Arantzibia plaza, 4-5, behea.
Andoain. 943 300 732.

Natural Project zuzenean

Larunbat arratsaldean, Aingurasutegi kalearen atzealdeko plazatxoan, Andoaino Natural Project musika taldeak kontzertua egin zuen. Disko berria argitaratu zuten, eta kantu berriak argitaratzeko gogoz dira. Txuri-beltz tabernak antolatuta, herrikide ugari hurbildu zen kontzertua bertatik bertara ikustera.



AIURRI



POSTONTZIA



IPAR HAIZEA
PLATAFORMA
ANDOAIN

Andoingo itunean adostutakoak betetzen joateaz poztzen gara

Pozten gaitu Andoingo Udalak atera berri duen oharrak, non arropa, olio eta kafe kapsula edukiontzi gehigarriak txertatutako direla adierazten den. Eskaera hori Andoingo Itunean agertzen denetaiko bat da. Bere garaian, Andoainen ordezkariak duten alderdi guztiak eta zenbait herriko elkarteek Ipar Haizeak sustatutako oharrari atxikimendua adierazi zioten.

Modu honetan, hondakinen gaikako biltzeta bultzatzeko aurrerapausoa dela deritzogu, frakzio gehiago herriko toki gehiagotan sailkatzeko erraztasunak emango baitira.

Horrek Andoingo Ituneko puntu garrantzitsuena betetzeko bidean pausu bat gehiago izatea espero dugu, egun (ekaineko datuak) hondakinen % 61,30, soilik, gaika biltzen baitugu herriguneko etxebizitza eta merkatalguneetan. Eta industriaguneetan, aldiz, % 58,51an dago gaikako biltzeta. Gogora dezagun, Andoingo Itunean 2022rako % 70ko gaikako biltzeta betetzeko konpromisoa hartzen zela, eta hori ez dela bete. Horregatik, bertan aipatzen den moduan, neurri zuzentzaileak hartu beharko dira. Gure aldetik, eskua luzatu nahi diegu Andoingo alderdi politiko guztiak bide honetan pauso sendoak emateko. Eta, norabide horretan, Andoingo Ituneko hurrengo jarraipen bileran proposamen ezberdinak egingo ditugu.

Egin dezagun posible Urretxu, Beasain, Zumarraga, Ordizia, Arrasate edota Bergaran posible dena. Ikas dezagun ondo egiten dutenengandik, guk ere hobeto egin ahal izateko.



Maria Josefa Pino eta bere semea, Emilio Martin. AIURRI



Herrikide ugari elkartu zen, asteazken arratsaldean. AIURRI

Hogar Extremeñoen oroigarri berezia Maria Josefa Pinori

92 urteko Maria Josefa Pino Peñak jaso du aurten Andoingo Hogar Extremeñoak adinez zaharrena den pertsonari eman ohi dion oroigarria. Kultur astearren barnean izan zen, eta oroigarria Andoni Alvarez Andoingo alkatearen eskutik jaso zuen

Xabier Lasa ANDOAIN

Emilio Martin senarra eta biak, Extremadurako Badajoz probintziako Monterrubio de la Serena jaioterrian ezkondu eta 1964an etorri ziren Andoainera. Bikotea Kale Berrian bizitzen jarri zen, lehenbizi. Eta, aurre-

rago, Juan Batista Erro kalean. Hiru seme-alaba eduki zituzten. Orain hilabete batzuk hil den senarra Arratibel okindegian langile sartu zen bitartean, Maria Josefa Pinok etxeko lanei eta hiru seme-alaben zaintzari heldu zion.

Aurten Maria Josefa Pino izan da kultur asteko protagonistetakoa. Asteazkeneko omenaldi-ekitaldian adineko herrikide ugari elkartu zen. Zizka-mizkak eta gero, omenduak Andoingo alkatearen eskutik jaso zuen oroigarria.

Eraildako aita, gogoan

Orain bi urte, Maria Josefa Pinoren biloba den Sheila Arnai- zek, Hogar Extremeño elkarteak kultur astearren baitan antolatutako ohi duen kontakizun laburren lehiaketan parte hartu zuen. Hain zuzen, bere amonak familia-giroan kontatu ohi zuen benetako istorio tragikoa oinarri hartu zuen kontakizun labur hunkigarria idazteko. Maria Josefa amonak beti eduki izan du bizirik bere gurasoei Monterrubio de la Serenan gertatu zitzaizena 1936ko kolpe militarren ondorengo gatazkaren barnean, eta bere horretan transmititu izan die seme-alabei eta bilobei ahal izan duen guztietan, horiek ere bikotea gorde dezaten oroitzapenean.

Maria Josefaren gurasoen gertaera latza, ipuin bilakatuta

SHEILA ARNAIZ ANDOAIN

“Denbora luze elkartu gabe egon ondoren, familiak amonaren etxean biltzea erabaki zuen. Han, argazki betetako album bat begiratzen hasi ziren, une zaharrak gogoratzeko, eta, horrela, pixka batean barre egiteko. Biloba txikiena argazki bati erreparatu zion. Neskatoak inoiz ikusi ez zuen gizon baten ondoan amona ikus zitekeen, zoriotsu. Hain bitxia zenez, galdetzea erabaki zuen.

—Amona, nor da gizon hau?
—Nire senarra zen, nire bizitzako maitasuna. Gogoan dut elkar ikusi genuen lehen aldia. Bere familiarren zapata-dendara joan nintzen zapatak konpontzeko eskatzera. Gure



Sheila Arnaizena da Agenda30 egitasmoaren logoa. AIURRI

begiradak gurutzatu zirenean, zerbait magikoa sentitu nuen, eta bihotza gero eta azkarrago hasi

zitzaidan, taupadaka. Pixkanaka, elkar ezagutu genuen. Mutil apala eta sentibera zen, eta oso ondo tratatzen ninduen. Berezia zen, begirada ezti eta zintzoa zuena. Gogoan dut gure lehen musua ere. Bere etxetik gertu izan zen, olibondo baten azpian. Orduan eskatu zidan berarekin ezkontzeko. Bi aldiz pentsatu gabe, baietz esan nion. Ezkondu eta zoriotsu bizi izan ginen urte zorigaiztoko egun hartara iritsi ginen arte. 1938ko uztailaren 20an, gure bi mandoek ihes egin zuten, eta senarra haien atzetik korrika hasi zen. Zalditeriak pentsatu zuen gerratik ihesi zihoala, eta orduan, hil egin zuten.

Hilda aurkitu nuenean, negarrez hasi nintzen atsekabeturik, mundua gainera erortzen ari zitzaidala sentitzen nuen; nire bizitzak ez zuen zentzurik, hautsita zegoen. Baina, ziur naiz egunen batean berriro elkartuko garela; berriro elkarrekin egongo gara, auskalo zer gerta baitaitekeen heriotzaren ondoren!

Familia harrituta geratu zen amonaren kontakizuna entzunda. Ezin zuen sinetsi gertatzen ari zena; izan ere, nola zitekeen hura guztia gogoratzea?

Amonak dementzia larria zuen Alzheimerren gaixotasunagatik, baina beti oroitu zen bere maitasun handi eta bakarraz”.